


Bidaiak scriptoriumean zehar



Bidaiak scriptoriumean zehar

Jatorrizko izenburua: *Travels in the scriptorium*

Egilea: Paul Auster

Itzultzailea: Oskar Arana

Argitaratze urtea: 2007

Argitaletxea: Alberdania

MIKEL GARMENDIA

Blank jauna, "hirurogei eta ehun urte arteko" pertsona, gela batean esnatu da eta ez daki ez non dagoen ez zer egiten duen gela horretan. Ez du ezer gogoratzen eta inguruan dituen objektuek etiketak dauzkate jarrita: "aulkia", "mahaia", "parea"... Mahai gainean, berriz, esku-izkribu bat eta argazki-sorta bat, iraganera bidaiatzen, iragana berreraikitzen eta ahanztura gainditzen lagunduko diotenak. Halako batean, zenbait pertsona hasiko zaizkio banan-banan gelan sartzen. Ez ditu ezagutzen, baina badirudi Blank jaunaren bizitzako parte izanak direla. Horien artean Austerren aurreko eleberrietako zenbait pertsonaia azalduko zaizkigu, hala nola diren David Zimmer edo Anna Blume. Annak egundoko eragina izango du, gainera, Blank jaunaren, Austerren beraren alter egoaren iragana berreraikitze horretan. Izan ere, esango nuke azkenean Anna dela Blank jaunari gelditzen zaion eta inporta zaion helduleku bakarra, zentzua duen bakarra, maite duen pertsona bakarra.

Begien bistakoa da, bestalde, Austerrek zinemarako duen joera. Hala, narratzaileak berak esango digu kamera baten bitartez jarraituko dugula nola berreraikiko duen Blank jaunak, sartuta dagoen gelatik bertatik, bere iragana. Austerren betiko gaiak ikusiko ditugu kamera horren bitartez: bakardadea, oroimena eta ahanztura, halabeharra, zentzugabekeria... Batzuk diote ez dela eleberri on horietakoa, dezepzionatu egin omen ditu benetako Austerzaleak. Ez nator inola ere bat. Eleberri borobila da, zentzu osoa daukana, hori bai, Austerren estilo eta gisan emana. Esango nuke Auster eta Blank jaunaren arteko harremana Miguel Unamunokoaren eta bere *Laino* eleberriko Augusto Pérez-en artekoaren antzekoa dela. Bestetik, ez dakit Austerren azken eleberria izango dugun, baina guztiz ongi izan liteke, halako kontu-garbiketa bat baita azken finean: iraganetik, iragan gordinetik gelditzen zaion bakarra Anna da, zauriz beteriko anaimalia bat zaintzen dakien bakarra, samur eta ulerbera zaion bakarra.

Esana dugu, kamera baten bitartez jarraituko dugula istorioa eta horrek baditu bere ondorioak idazkeran eta, zehazkiago esanda, aditzaren aspektuan. Denbora errealean ariko gara ikusten, kameraren bitartez, Blank jaunaren eguneroko bizitza eta horrek, jakina, presente narratiboa eskatzen digu, aditzaren aspektu burutugabea, alegia ("sartzen da", "ematen dio"). Ongi ohartu da horretaz Oskar Arana itzultzailea eta bikain jaso du estilo zinematografiko hori. Eta itzulpenaz ari garela, aipatutako meritu horretaz gain, bikain asmatu du oraingoan ere (*Brooklyngo erokeriak* eleberrian bezala) Austerren estiloa eta tonua euskaraz ematen. Lan txukuna benetan.